

1 MAIATZA



**LANA ETA ABERASTASUNA
BANATZEAREN ALDE**

ASKI DA USTELEKERIAZ

ASKI DA ERREPRESIOAZ



JKAL

LANA ETA ABERASTASUNA BANATZEAREN ALDE ASKI DA USTELEKERIAZ! ASKI DA ERREPRESIOAZ!

Maiatzaren lehenak errebindikazio eguna izan behar du, borroka eskubideen berme gisa aitortzeko eguna: **lan duinerako eskubidea**, derrigorrezko lana eta bizitza soziala batera eramatea ahalbidetzen duen **lanaldirako eskubidea**; **soldata eta gizarte prestazio askiak izatekoa**, bai enplegua dugunean, bai enplegurik ez dugunean; duintasunez bizitzeko **pentsio** egokietarako eskubidea; **askatasun sindikal eta negoziazio kolektiborako eskubidea, etab.**

Sistema kapitalistaren krisi-iruzurraren seigarren urtera, eta Lan Erreformari buruzko eta Gizarte Segurantzari buruzko legeen bi urtera, **desagertu diren eskubideak** gobernuek, boteretsuek eta enpresaburuek “beren gizarte eta zuzenbide estatuaren aurka” egindako **estatu kolpearen eraginez**. Kolpe horrek lan, gizarte eta politika mailan **jauntxoan eta Erdi Aroko kapitalismoaren garaietara eraman gaitu atzera**, eta izuaren errealtatera itzularazten gaituen ispi luaren aurrean kokatu gaitu, non dagoeneko, haien aldetik, “gehiengo sozialarentzat etorkizuna are makurragoa izanen dela” bermatzen diguten.

Hauxe da diseinatu dizkiguten etorkizun-oraina:

Sei milioi lagun langabezia, enplegutik bidaliak eta bere funtsezko eskubidea, “bizimodua irabazteko” eskubidea ukatua dutenak. Hedaduraz, behar egoeretan babesa ukatzen digute: **ez gizarte prestazioirik, ez oinarrizko errenta askirik** duintasunez bizi ahal izateko.

Milioi erditik gora enplegu publiko suntsiturik, beren murrizketa eta ez inbertitzeko politikekin zerbitzu publikoak “eraginkortasunik gabeko erakunde” bihurtu dituzte, desagertzera eramateraino. Pertsonen oinarrizko beharrak bete ez, eta “aitzakia ezin hobea” aurkitu dute merkatuari eta bere lagun enpresaburu pribatuei hamaika mila milioi eskualdatzeko, hots, denona den **ondare publikoaren lapurreta lotsarik gabekoa burutu dute.**

Negoiazio Kolektiborako eta Askatasun Sindikalerako eskubideak kendu dizkiete langileei, haien erakunde sindikalei, eta egun dagoen askatasun bakarrenen, hau da, kapitalaren askatasunaren aldrean, sakrifikatu dituzte, enpresaburuen alde bakarreko borondateak, bere nahierara, lana eta bizitza antola ditzan, soldatapekoa erabili eta botatzeko salgai bihurturik.

Milioika langileren **pobretze** materiala, soldata errenten murrizketa masiboen bitartez eragindakoa, **munduko gizarterik ezberdinenetakoa** sortzen ari da: estatu espainiarreko 20 lagunek populazio pobreenaren %20k (hots, 8 milioitik gora lagun) adina aberastasun piltzen dute.

Eta pertsonak, gutxieneko bizimodu duin baterako oinarrizkoak diren eskubide horien defentsan kalera ateratzen garenean, gu **bozatzan, isilarazten, saiatzen dira, askatasunaren suntsitzaile diren legeen bitartez** (Herritarren Segurtasunari buruzko Legea, Abortuari buruzko Legea, Grebari buruzko Legea, Jurisdikzio Unibertsalari buruzko Legea, etab), erabat neurritz kanpoko **errepresio politziala erabilia.**

Aurtengo **Maiatzaren Lehenak** hamaika milioi langilek **ASKI** errateko eguna izaten segitu behar du, gure eguneroko bizimodua, ez sufrikarioz ez etsipenez, baizik eta **ASKATASUNEZ** bete dezagun, eta gobernu, enpresaburu eta boteretsuei beste **Ordena Sozial bat** ezartzeko, beste sistema bat, non lanaren eta aberastasunaren banaketak ahalbidetuko duen pertsona guztientzako **BIZITZA DUINA** hemen eta orain posible izatea.

GORA MAIATZAREN LEHENA, BORROKAZ ETA DUINTASUNEZ!

LAN ETA GIZARTE GREBA OROKORRERANTZ!

www.cgt-lkn.org.es

www.rojoynegro.info